



MASTER AMAIERAKO LANA EGITEKO ARAUAK (MAL)

2025-26 ikasturtea

1. **MAL**ak saileko ikerketa-lerro batean, beste sail o unibertsitate batean edo beste ikerketa-zentro edo -erakunde batzuetan egin daitezkeen lan esperimentalak dira.
2. MALa EHU ez den beste zentro edo erakundeetan egiteko, erakunde horren eta gure unibertsitatearen artean hitzarmen bat egon behar da. Ez balego, lanarekin hasi aurretik **hitzarmen** instituzional bat sinatu behar da.
3. Masterraren Batzorde Akademikoak erakunde guztien ikerketa-lanen proposamenak jasoko ditu, eta ikasleen eskura jarriko ditu.
4. Mikroorganismoekin, genetikoki eraldatutako organismoekin, animaliekin eta/edo giza laginekin egindako ikerketa-lanak dagozkien **Etika-Batzordeek** onartu beharko dituzte, EHU edo ospitaleetan, lana Osakidetzako laginekin egingo bada, edo Euskadiko Batzordean. Halaber, ikerketa-lana enpresa batean egiten denean eta giza laginak erabiltzen dituenean, dagokion Etika-Batzordearen onospena izan beharko du. Arau hori aplikatu behar da baita lana zuzenean ospitale, klinika eta abarren batean lortutako emaitzen gainean egiten denean ere. Etika Batzordearen onспен-dokumentua aurkeztutako dokumentuan jarri beharko da, MALaren estilo-gidan adierazten den bezala.
5. Masterreko Batzorde Akademikoak baimena eman behar die MALeko zuzendari guztiei. Horrela, **laneko Zuzendaria masterreko irakaslea ez bada**, curriculum laburtua bidali beharko du Batzordera, eta bertan adieraziko du zer lanpostu betetzen duen, ikerketa-proiektuak eta artikulu garratzitsuak.
6. MALa bi pertsonak zuzendu dezakete, lanaren edukiak justifikatzen badu, edo ikertzaile gazteak zeregin horietan hasteko modu bat ere izan daiteke, Masterreko Batzorde Akademikoak baimena eman ondoren.
7. Lanak egitura hau izango du: **AZALA, ZUZENDARIAREN BAIMENA, AURKIBIDEA, ETIKA BATZORDEAREN ONESPEN-DOKUMENTUA (HALA BADAGOKIO), LABURPENA, SARRERA ETA HELBURUAK, MATERIALA ETA METODOAK, EMAITZAK, EZTABAIDA, ONDORIOAK ETA BIBLIOGRAFIA.** (Ikus MALeko estilo-gida).
8. Era berean, Master Amaierako Lan guztietan jasoko da egindako lanari buruzko gogoeta bat, printzipio eta balio demokratikoei eta Garapen Jasangarrirako Helburuei jarraituz egina. Gogoeta horrek aurkeztuko du MALak balio horiekin GJHeK osatzen duten lan esparruarekin duen lotura, eta/edo horiekiko ikuspegi kritikoak planteatzen ditzake.
9. MAL guztiek kontuan hartu beharko dituzte EHUk argitaratutako adimen artifizial generatiboa erabiltzeko gomendioak https://www.ehu.eus/eu/web/adimen-artifiziala/ehun-aa-erabiltzeko-printzipio-eta-gomendioak_deskargatu
10. Ebaluazio-batzordearen aurrean lanak **aurkezteko eta defendatzeko** ohiko deialdia ekainean edo irailean egingo da, onartutako eta argitaratutako egutegiaren arabera. Aurkezpenak 15 minutu iraungo du, eta ondoren ebaluazio-batzordeak eztabaidatzen jarraituko du.



11. MALak hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahalko dira (euskaraz edo gaztelaniaz), baita ingelesez ere.
12. Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen web-orrian adierazten da zer prozedura jarraitu behar den MALa GAUREn inskribatzeko, baita defentsa-eskaera egiteko ere. <https://www.ehu.eus/eu/web/medikuntza-erizaintza-fakultatea/master-amaierakolana/ikasleak>
13. MALeko epaimahaikideek ebaluazioa egiteko, MALeko dokumentua ebaluatzeko Errubrika eta MALaren aurkezpena ebaluatzeko Errubrika erabiliko dituzte. Agiri honen 1. ERANSKINEAN daude jasota.
14. Ahal den neurrian, hizkuntza inklusiboa erabiltzea gomendatzen da, eta genero-ikuspegia kontuan hartzea egindako ikerketaren planteamenduan eta eztabaidan.



MALeko estilo-gida

Egitura:

Gehienez 20 orrialde izango ditu (Azala, Zuzendariaren baimena, Etika Batzordearen onespens-dokumentua, Aurkibidea, Laburpena eta Bibliografia izan ezik). Arial/Calibri/Times New Roman/EHU Sans 12 tamainako letra-mota erabiliko da testu nagusirako, 1,5 cm-ko tartearekin lerroartea egiteko, eta gutxienez 2 cm-ko marjina utziko da alde guztietatik. Irudien oinerako, taulen goibururako eta bibliografiarako, letraren tamaina 10ekoa izango da.

- 1. Azala:** Azalak dokumentu honen 2. ERANSKINEAN ezarritako ereduari jarraituko dio.
- 2. Zuzendariaren baimena:** Laneko zuzendariak sinatutako baimena jasoko da nahitaez, haren defentsa baimentzeko. 3. ERANSKINA
- 3. Etika Batzordearen onespens-dokumentua** (hala badagokio).
- 4. Aurkibidea:** Aurkibidean lanaren atalak eta atal bakoitza hasten den orrialdea jaso behar du.
- 5. Laburpena:** MALa garatzen den hizkuntza ofizialean eta ingelesez. MALa ingelesez egiten denean, laburpen bat gehitu behar da nahi den hizkuntza ofizialean. Laburpenaren gehienezko luzera orrialde batekoa da hizkuntza bakoitzeko.
- 6. Sarrera eta Helburuak:** Gaiaren egungo egoera eta lanaren helburuak azaltzea. Lanak eta GJHen arteko loturaren gaineko hausnarketa jaso behar du.
- 7. Materialak eta Metodoak:** Lana garatzeko erabiltzen diren materialen eta metodologiaren deskribapen argia eta zehatza. MALa egin den zentroa(k) eta laborategia(k) adierazi behar da.
- 8. Emaitzak:** Ikasleak bere MALaren testuinguruan lortutako datu esperimentalen deskribapena eta erlazioa. Taulak (izenburuarekin eta oin-oharrekin) eta irudiak (bere legendeekin) testuan tartekatuko dira, ahal den neurrian testuan aurkezteko hurrenkera errespetatuz, eta betiere testuan lehen aldiz aipatu ondoren.
- 8. Eztabaida:** Lortutako emaitzak gaiari buruz eskuragarri dagoen informazioaren testuinguruan kokatzea. **Lortutako emaitzak eta haien eztabaida bateratzeko** aukera ahal izango da, aurkezpena bizkortze aldera.
Eztabaida amaitzeko, paragrafo bat idatzi beharko da. Bertan, ikasleak bere emaitzen norainokoa edo eragina baloratu beharko du, eta, hala badagokio, konpondu gabe gera daitezkeen arazoak edo gaiak azaldu beharko ditu, etorkizuneko sakontze-lan bat eragin dezaketenak.
- 9. Ondorioak:** Egindako lanetik atera daitezkeen ondorio garrantzitsuenak puntuz puntu jasoko dituen atal bat sartu behar da.
- 10. Bibliografia:** Lanean zehar kontsultatutako eta berariaz aipatutako lanen zerrenda biltzen du. Dokumentuaren azken atala izango da, eta 4. ERANSKINEAN deskribatutako arauak bete beharko ditu.

Defentsa: Defentsa eskaera, GAUREan, eta lanaren igoera ADDIn, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen web-orrian argitaratutako araudiaren arabera egingo da:
<https://www.ehu.eus/eu/web/medikuntza-erizaintza-fakultatea/master-amaierako-lana/ikasleak>



Immunologia,
Mikrobiologia eta
Parasitologia Salla
Departamento de
Inmunología, Microbiología
y Parasitología

ERANSKINAK

- 1. MALa ebaluatzeko gida**
- 2. Azala**
- 3. Zuzendariaren baimena**
- 4. Erreferentziak aipatzeko arauak**



1. ERANSKINA

MASTER AMAIERAKO LANA EBALUATZEKO GIDA: ikaslea: _____

Aurkezpena eta Defentsa: 3/10

	1-4	5-7	8-10	Nota
Edukiaren antolaketa eta domeinua. Ikusizko baliabideak (% 10)	<p>Atal bakoitzaren antolaketa eta denbora ez da egokia.</p> <p>Ez du entzuleen arreta puntu garrantzitsuetara bideratzen (diapositiban markatu).</p> <p>Ez du erakusten edukia menderatzen duenik, askotan irakurri behar du aurkezpenean idatzitakoa.</p> <p>Erabilitako ikusizko baliabideek ez dute aurkezpenaren jarraipena errazten.</p>	<p>Atalen sekuentzia eta atal bakoitzari eskainitako denbora onargarriak dira.</p> <p>Entzuleen arreta puntu garrantzitsuetara bideratzen du, baina ez beti.</p> <p>Edukiaren domeinu onargarria erakusten du.</p> <p>Ez du ia irakurri aurkezpenean idatzitakoa.</p> <p>Erabilitako baliabideak onargarriak dira aurkezpenaren jarraipen egokia egiteko.</p>	<p>Aurkezpena oso ondo antolatuta dago. Atalen sekuentzia eta denboraren banaketa oso egokiak dira.</p> <p>Entzuleen arreta puntu garrantzitsuetara bideratzen du.</p> <p>Edukiaren domeinua erakusten du.</p> <p>Ez du aurkezpenean idatzitakoa irakurri beharrik.</p> <p>Ikusizko baliabideen erabilera bikaina egiten du.</p> <p>Erabilitako baliabideek, neurri handi batean, aurkezpenaren jarraipena errazten dute.</p>	
Hizkuntza zientifikoa (% 10)	<p>Kontzeptuak eta terminoak nahasten ditu.</p> <p>Adierazpen-maila ez oso zientifikoa.</p> <p>Segurtasunik eza erakusten du, sinesgarritasun gutxikoa.</p>	<p>Kontzeptuak eta terminoak modu onargarrian erabiltzen dira.</p> <p>Adierazpen-maila zuzena, baina ez erabat akademikoa.</p> <p>Segurtasuna erakusten du.</p>	<p>Erabilitako kontzeptuak eta terminoak menderatzen dituela erakusten du.</p> <p>Hizkuntza akademikoa eta zuzentasun gramatikala eta sintaktikoa erabiltzen du.</p> <p>Hizkuntza oso arina da.</p> <p>Segurtasun handia du.</p>	
Eztabaida (% 10)	<p>Ez ditu galderak behar bezala erantzuten.</p> <p>Ez du segurtasunik bere erantzunetan, eta bere jarrera ez da egokia.</p>	<p>Erantzun zuzena ematen du galdera errazei.</p> <p>Bere erantzunetan nolabaiteko segurtasuna eta jasotako iruzkinekiko nolabaiteko interesa erakusten ditu.</p>	<p>Zuzen erantzuten ditu galdera gehienak, errazak zein maila altuagokoak.</p> <p>Segurtasunez erantzuten du eta jasotako iruzkinekiko interesa erakusten du.</p> <p>Jasotako iruzkinei buruzko argudio gehigarriak (bere lanarekin erlazionatutakoak) prestatzeko gai da.</p>	



Aurkeztutako dokumentua: 7/10

	1-4	5-7	8-10	Nota
Hizkuntzaren edizioa, argitasuna eta zuzentasuna. ETIKA eta GJH (% 8)	Ez dator bat MALaren gidan ezarritako arauekin. Adierazpen-maila ez oso akademikoa, esamolde lagunkoiegiak. Argitasun eskasa: esaldi nahasiak. Akats sintaktiko eta ortografiko larriak. Etika Batzordearen onespren-dokumenturik eza, eta hori beharrezkoa izatea. GJHei buruzko hausnarketarik ez.	MALaren gidan ezarritako arauetara egokitzen da, baina edizio-akats batzuk ditu. Adierazpen-maila zuzena, baina ez akademikoa. Argitasun hobea. Akats sintaktiko eta ortografiko larri gutxi. Etika Batzordearen onespren-dokumentu desegokia. GJHei buruzko hausnarketa laburra eta desegokia.	MALa egiteko gidako arauetara erabat egokitzen da. Hizkuntza akademikoa erabiltzea. Argitasuna eta eraginkortasuna ideiak transmititzeko. Akats sintaktikorik eta ortografikorik ez izatea. Etika Batzordearen onespren-dokumentua eguneratua eta egokia. GJHei buruzko hausnarketa egokia.	
Sarrera (% 10)	Berrikuspen bibliografikoa eta aurrekariaren azalpena nahasgarriak eta desegokiak dira.	Berrikuspen bibliografikoa eta aurrekariaren azalpena nahikoak dira, baina hobetu daitezke.	Berrikuspen bibliografikoa eta aurrekariaren azalpena oso ondo eginda daude.	
Helburuak (% 7)	Ez dira lanaren helburuak ezartzen, edo modu eskasan edo nahasian deskribatzen dira. Ez datoz bat dokumentuaren gainerako edukiekin.	Ezartzen dira, baina haien deskribapena ez dator guztiz bat dokumentuaren edukiarekin.	Argi eta zehatz ezartzen dira. Dokumentuaren edukiarekin koherenteak dira.	
Materiala eta Metodoak (% 10)	Erabilitako metodologia ez da egokia proposatutako helburuak ebazteko. Deskribapena ez da nahikoa.	Metodologia egokia da. Deskribapena onargarria da, baina hobetu daiteke.	Metodologia egokia da. Deskribapena zuzena da	
Emaitzak (% 10)	Lortutako emaitzak ez datoz bat erabilitako metodologiarekin, ezta azaldutako helburuekin ere. Deskribatutako eta/edo landutako emaitzak nahasgarriak eta/edo okerrak dira.	Lortutako emaitzak bat datoz erabilitako metodologiarekin eta azaldutako helburuekin. Deskribatutako eta/edo landutako emaitzak zuzenak dira, baina hobetu daitezke.	Lortutako emaitzak bat datoz erabilitako metodologiarekin eta azaldutako helburuekin. Deskribatutako eta/edo landutako emaitzak egokiak dira.	
Eztabaida (% 10)	Lanean ez dira erakusten Masterrean zehar eskuratutako ezagutzak. Ez da kontzeptu integratzaileak lantzen (itxiera-ondorioak, etorkizuneko lanetarako hipotesiak), edo horien adierazpena okerra, nahasia edo kontraesankorra da dokumentuaren gainerakoarekin.	Lanean, Masterrean zehar eskuratutako ezagutza batzuk baino ez dira erakusten. Kontzeptu integratzaileak lantzen dira (itxiera-ondorioak, etorkizuneko lanetarako hipotesiak), baina edukia hobetu daiteke.	Lanean erabat erakusten dira Masterrean zehar eskuratutako ezagutzak. Kontzeptu integratzaileak lantzen dira (itxiera-ondorioak, etorkizuneko lanetarako hipotesiak) egoki lantzen dira.	
Ondorioak (% 7)	Ondorioek ez dute benetan islatzen lanean lortutakoa.	Atala egindako lana modu lausoan deskribatzera mugatzen da (laburpen gisa).	Atalak puntuz puntu laburbiltzen ditu lanean lortutako ondorio garrantzitsuenak.	
Bibliografia (% 8)	Ez dira erkatu lanaren edukiak (sarrera, helburuak, materiala eta metodoak, emaitzak, eztabaida) iturri bibliografikoetan eskuragarri daudenekin. Iturriak ez dira egokiak edo ez dira eguneratuak.	Lanaren edukiak erkatu dira, baina kontsultatutako bibliografia ez da guztiz egokia edo egungoa.	Eskura dagoen bibliografia kontsultatzeko lan sakona egin da, eta egokia eta eguneratua da.	



Immunologia,
Mikrobiologia eta
Parasitologia Saila
Departamento de
Inmunología, Microbiología
y Parasitología

2. ERANSKINA

MIKROBIOLOGIA ETA OSASUNA UNIBERTSITATE MASTERRA /
MÁSTER UNIVERSITARIO EN MICROBIOLOGÍA Y SALUD
Master Amaierako Lana / Trabajo Fin de Máster

Lanaren izenburua / Título del trabajo

Lanaren azpititulua / Subtítulo del trabajo

Egilea/Autor/a:

XXX XXX

Zuzendaria(k)/Director/a(s):

XXX XXX

Data/Fecha



3. ERANSKINA

MASTER AMAIERAKO LANAREN ZUZENDARIAREN BAIMENA	AUTORIZACIÓN DEL/LA DIRECTOR/A DEL TRABAJO FIN DE MÁSTER
---	---

Zuzendari guztien izen-abizenak / Nombre y apellidos de las personas directoras:

IFZ / NIF:

Master Amaierako Lanaren izenburua / Título del Trabajo Fin de Máster:

Ikaslearen izen-abizenak / Nombre y apellidos del/la estudiante:

Aurkezteko behar diren baldintza guztiak
betetzen dituela ikusita, bere baimena
ematen dut.

Visto que reúne las condiciones necesarias
para su presentación, autorizo la presentación
del mismo.

Tokia eta data / Lugar y fecha:

Sin. / Fdo.: Master Amaierako Lanaren zuzendaria / El/La director/a del Trabajo Fin de Máster



4. ERANSKINA

Erreferentziak aipatzeko arauak

Testu nagusian erabilitako letra-mota eta lerroarte bera erabiliko da, 10 tamainan.

MALeko dokumentuan, erreferentziak zenbakirik gabe adieraziko dira, egilearen izena(k) inizialik gabe eta argitalpenaren urtea (adib. "Peterson-ek (1993) frogatu du..." edo "... geroago beste egile batzuek (Kramer, 1994)"). Bi egile badaude, biak aipatuko dira (adib. "Peterson-ek eta Johnson-ek (1993) frogatu dute..." edo "... geroago beste egile batzuek (Kramer eta Master, 1994)"). Bi egile baino gehiago daudenean, lehen egilearen izena erabiliko da, eta, ondoren, "*et al.*". Paragrafo batean artikulua bat baino gehiago zerrendatu nahi badira, ";" eta alfabeto-ordenaren arabera bereiziko dira (Rosler *et al.* 2005; Sadava *et al.* 2011).

Erreferentziak **Bibliografia** atalean zerrendatu behar dira, **Vancouver** edo **APA** estilo-araudiaren arabera eta 1. egilearen ordena alfabetikoaren arabera ordenatuta.